

## **BOTEROTASUNA EDO DIMENTSIOARI BESTE DIMENTSIO BAT OPATU NAHIAN**

Fernando Boteroren koadro bat ikusi nuen lehenengo al-dian mota eta forma guztietako kuxinez, koltxoiz eta edredoiz betetako areto batean nengoela iruditu zitzaidan, jasotako biguntasun zein amalgama sentsazioak erabatekoak izan baitziren. Begi-niniak are gehiago borobildu, bihotza handitu eta birrikak dexente zabaldu zitzaizkidan hainbeste bihurgune leun laztantzeagatik, malenkonia kutsuagatik eta pisurik gabeko airean zehar hegaz egiteagatik, baina, batez ere, bolumenagatik, pertsonaia puztuez gain, hormen luze-zabaltasuna mugagabea baitzen. Kotoi haragizatuaren baitan nengoela pentsatu nuen. Patxada ere nabaritu nuen, giroak horretara bultzatu ninduen-eta. Izan ere, ikusleak Boterorengana hurbilduz gero, frogatu ahal izango du kolonbiarraren pintura ahaltsua dela eta, gauzak honela, edonor bere munduan buru-belarri murgilarazteko gaitasuna duela.

Gerora, bere koadro baten aurrean egon naizen aldiro, gauza berdintsuekin topatu naiz. Izan ere, Boteroren pintura sentsazio desberdinen topagunea dugu. Bere koadroak gauzez lepo eta pertsonaiez mukurru daude, baina pertsonaiei harriduraren eta esanezintasunaren arteko zerbait darie, halako barne hustuketa berezia. Gertutasuna da beste ezaugarrietariko bat, hor daude irudiak, baina distantzian landuak. Jorratzen dituen gaien artean batzuk zeharo mingarriak dira (torturak, gudak, buru-hilketak edo istripuak, alarguntza egoerak), baina bere

pintzelean desdramatizatuta daude, ez dauka etsaigorik, ezta larritasunik ere. Egoera molestagarriak aurkezten dituenan ere, adibidez, lapur bat, akats fisikoren bat duten pertsonaiak (zehazki, estrabismoarekin) edo ohiko arauetatik kanpoko moduak (trabesti bat, esate baterako) beti modu erosoan egingo du. Natura hilek ez dirudite hilda daudenik, aitzitik, bizirik diraute, kolorez eta argiz bizirik. Zenbait mihise pintatzeko garaian ideia satirikotik abiatzen bada ere, emaitza gisara minik ematen ez duen umorea dauka (eta erlijio gaietan umore errenazentista duela zehaztu beharko). Berea ikuskizuna da, ezbaierik gabe, ikuskizuna bolumenagatik, monumentaltasunagatik, antzerki izaeragatik, baina harrokeriarik gabeko handipuztasun horrek, aurrez aurrekotasun horrek ez zaitu zapaltzen ikuskizun askok egiten duten legez, berea ikuskizun bitxia baita, halako barnekoitasun bat duelako (dena dela, agerikoa den barnekoitasuna). Biluziak ez dira biluzi-biluziak, batetik, ez dutelako erakargarritasunik eta, bestetik, geruza hieratiko batez, zeramika geruza batez estalita daudelako. Estilo figuratiboa landuagatik ere (beraz, konkretua), hainbat mugagabetasun drammatza bere baitan, sarritan zertaz diharduen edo zeri dagoen ez dakizularik. Adibidez, pertsonaiek ez dute adin zehatzik, nahiz eta ikusleak ideiaren bat edo beste jaso xehetasunengatik. Joritasunari atxikitzen da, baina sinpletasunean dihardu. Boterorena pintura da, baina bere bolumenagatik eskulturgintza dirudi, hortik gauzen gorpuztasuna, izadiaren gorpuztasuna, abereen gorpuztasuna, lekuen eta elementu dekoratiboen gorpuztasuna. Bestaldetik, bolumenean sartuta egoteak ez du zertan pisutsua izan. Kolonbiarrak mestizajea ondo ezagutzen duela argi dago, baina mestizajeaz landa, kontrajarreretan maisu edo kudeatzaile eztabaidaiezina den barrokoak beste horrenbeste dialektika ekarriko dizkio Boterori, nabarmenatariko bat nolabaiteko espiritualtasuna haragizkotasunarekin lotzea delarik.

Honek guztiak hurrengo bereizgarriari erantzuten dio: antzaldaketari. Ibilbide artistikoaren hasieratik antzaldaketaren magian murgilduta ibiliko da eta, horrela, artearen historian gogoko izan dituen artisten koadroen bertsio desberdinak egingo ditu (Van Gogh, Van Eyck, Piero della Francesca, Leonardo da Vinci edo Velázquez, pintore batzuk bakarrik aipatzearren). Honetaz landa, miretsitako artistak erretratatu ditu (Goya, Cézanne...), bere erara erretratu ere, bere burua hainbat aldiz eta egoera desberdinetan errepresentaturik agertuko da edo trabestismoaren zein zirkuaren gaiei helduko die. Hor ikusiko dugu Botero Ingres eta Piero della Francescarekin afaltzen, Rubens bailitzan mozorroturik edo *Autorretratu Luis XIVgarrenarekin*, *Rigauden arabera* koadroan. Erakutsitako antzerki zerrendak amaigabea dirudi. Ez dago zalantzarik, tradizioa eta historia antzaldatzeko trebetasun izugarria du artista honek. Trabestismoari eusten dionean, xedea ez da arlo marjinal bat errebindikatzea edo oinarrizko giza eskubideen alde egitea, baizik-eta itxuraldaketarekin jolastea. Zirkuari dagokionean, eguneroko bizitzan dago, jolasa da, hainbeste antzerki motaren artean beste bat gehiago. Antzeppenaren ildotik egunerokotasunaz ere jardungo du eta hor aurkituko dugu Botero lehen jaunartzean, Botero museoko ibiltari, Botero toreatzaille... Aurreiritzi eta muga guztiak gaindituz, askatasuna, fikzioa eta idealtasuna den itxuraldaketak proportzioaren eta eskalaren ohiko arau logikoak iraultzera eramango du eta, horrela, malabarista artetsu batek bezala jolastuz, batetik, xehetasun batzuk agerian ipinaraziko ditu (oreztak, malkoak, izerdi tantak, zizaretxo bat, hozka txiki bat...) eta, bestetik, ustekaberik harrigarrienak aurkeztuko dizkigu. Edo komikotasunari ateak zabalduko dizkio, ikuspegi ezin bereziagoa landuz. Honen guztiaren ondorioz, euli gogaikarriak zetazko zerbait bihurturik ikusiko ditugu edo hegaz dabiltzan petaloak euren ñimiñotasunaren eta ezinbestekotasunaren seinale. Desitxuratuaren desitxuratuaz animalia batzuek, adibidez, katuek izaki erdi

munstro, erdi lehoi dirudite. Antzaldaketaren magiaren eraginez, Boteroren koadroak zintzilik dauden paretek durundatu egiten dute, zorua flotatzen dagoela dirudi eta sabaia gangarantz edo kupularantz doala. Koadro barrualdeetan gertatzen dena kanpoaldean ere gertatzen da edo, bestela esanda, Boteroren pinturek kokatuta dauden ingurua ere aldatzeko gaitasuna daukate.

Joera honek egilea fantasiara bideratuko du eta barrokoa erraztuko dio, azpil baten gainean bezala ikusterrean eta eskueran jarrita erraztu ere. Fantasiak asmazioa errealitatearen gainetik ipintzen lagunduko dio edota guztia sorkuntza eta birsorkuntzaren parametroetaraino bidaliko du. Azal ezin daitekeen xarma dauka Boterok esku misteriotso eta eskuzabaletan. Barrokismoari dagokionean, koloreari ematen dion tratamendua hortik datorkiola ebatzi ahal da, zeren kontrastean baitihardu, batetik, kolore leun eta aienatuxeak erabiliz, besteetan, berriz, biziak bezain intentsoak, modu honetan paleta kromatiko osoago bat aldeztuz eta bide batez argia zeinen garrantzitsua zaion iradokiz. Barrokoa ere bada aukeratutako gai eta motiboetan (jaiak, zeremoniak, bizitzaren gorespen hori) eta estiloan (formetan eta sentsualtasunean, antzerkirako joeran, ore desberdinen arteko koordinazioan eta konposizioan, arkiteturaren eta pinturaren arteko uztarketan).

Barrokoa aipatu dut, baina Errenazimentua ere hortxe dago, adibidez, pintura eta eskultura aldizkatzen dituenean edo perspektibak eta proportzioak direla tarteko espazioarekin egindako ilusionismo jokoetan.

Eta horrela, pixkanaka-pixkanaka denboran zehar moldatu duen haragizko barne ispiluari fidel izanez, garatuz eta goratuz doan dimentsio zabaleko arte honi forma emango dio, artea, azken finean, zerbait iradoki eta ezerean (ezta inoren) antzik ere ez edukitzean baitatza, beti haratago dagoen aldetik, itxuraldaketa etengabea egon ere.

Orain arte zerrendatutako bereizgarriez gain, badaude beste batzuk gogoratu beharrekoak. Adibidez, artisautzak ezinbesteko funtzioa du. Bere koadroei ogi egin berrien, soro erein berrien, zur eta belar moztuaren usaina darie, buztinezko ontzi moldatuen ukimena daukate. Hurbiltasun eta herrikoitasun horretan bilduta daude. Artearen eta artisautzaren arteko ezkontza zenbait arlotan islatuko da, xehetasunetan, perfekzioan eta antzerki izaeran, hain zuzen ere. Lehenengoaz den bezainbatean, xehetasunak guztiz zainduko ditu, marrazkiari opatzen dion ezinbesteko papera zeharo azpimarratuta geratzen delarik. Dekorazioarekin berdintsu jazoko da. Perfekzioari dagokionean, teknikoki ukitu guztiak daude ondo landuta, leunduta, orraztuta, biribilduta, labur zurrean, zehazki bukatuta. Antzerkiari begira, koadroek zurezko piezak dirudite, jostailutasun hori daukate, “benetako” antzerki eszenatokiak ere oroimenera ekarriz.

Boteroren artelana hain da ahaltsua, ezen estilo eta hizkuntza propioak erdietsi baititu, non denak kabitu ezinda dirudien, dena egundokoa eta aparta den, mugetatik irtenda norabait doala dirudien. Ez da, ba, harritzeko bere arteari dagozkion adjektiboak erraldoia edo sekulakoa izatea eta baita bizigarria, bihotz altxagarria, kontsolagarria edo eztigarria ere eta, ildo honetatik abiatu, ikuslearekiko enpatia berehala suertatzea.

Boterok, besteak beste, gauza material gutxirekin zure bizitza alda dezakezula irakasten dizu. Arratsalde aspergarri horietariko batean puxika batzuk puztu eta arratsaldea desberdina- go bihurtuko zaizu, alaiago, ludikoago. Bakar-bakarrik sentituz gero, panpina puzgarri horietariko baten aldamenean jarri, pelutxeko hartz bat oratu edo Angorako katu bat besarkatu eta ez zara hain marjinatuta egongo. Kezka existentzialekin jarraitzen baduzu, ikusi baloi bat hormaren kontra jo ondoren nola bote egiten duen ezer gertatuko ez balitz bezala eta agian esperientzia hau jasotakoan, ez zara hain apokaliptikoa izango. Edo hezurrik gabeko mertxikak dasta ditzakezu, gauzek ba-

rruan ez daukatela ezer edota ez dutela zertan eduki ondo-rioztatuz. Krisi garaiotan lokamutsek erasaten baldin badizute, burkoa lumaz bete eta lo lasaia eta amets gozoak bereganatuko dituzu. Oparoagoak izan gaitezkeela frogatzen digu prozesu katalizatzaileak bezala lasaitasunean diharduen eta Lur planetaren borobiltasunean dagoen Boteroren pinturak. Ziurgabetasunaz eta zalantzaz beteriko garaiotan beti dagoela babes zaitzakeen ate bat zabalik fantasiarako bidean esango digu. Hainbeste ertz, zapore garratz eta ustekabe bortitz dituen gaurko mundu honen aitzinean aterpe borobila da Boteroren artelana, harresirik gabeko babeslekua, nahiz eta gotortasunik ere baduen. Bide batez bizitza aurrera eramateko asmazioei putz eginez, ingenuitate eta fantasia apur bat behar dela gogoraziko digu.

Ikuslearekiko komunikazioa edo harremana hain da irmoa, ezen zeure burua molda dezan utzi ahal diozu Boterori, ondo tratatuko zaitu lohirako zein zeramikarako eskuak dauzkan eta psikologo baten atsegintasuna daraman artista honek, gizarte ongizatea aurreikusi eta laudatzen duenak. Horrela, bere koa-droekin egondakoan, zeure burua pixka bat ameslariago eta zoriontsuago kausituko duzu eta baita naifago ere, bere zirkuan parte hartzera, zalditxo horietariko batean zamalkatzen aritzera edota, panpina bihurturik, pertsonaia horietariko baten besoetan egotera gonbidatzen baitzaitu. Denboraren perspektiba berriarekin irtengo zara, denboraren igarotze ankerra zeharo ahazturik, denbora atsegin, gozagarri eta mugagabearen alde eginez eta, aisialdiari aisialdi eta betari beta emanaz, egoteko beste modu batekin aholkatuta eta proposatuta. Eta baita bestelako pertzepzio eskultorikoarekin, erabatekoago, aldame-nekoago eta beharrezkoagoarekin.

Aspalditik ez baduzu esku samurrik izan ondoan, inoiz ez bezalako udare bat, laranja urtsuak eta platanu sentsualak jan eta dastatzeko gogoia sartzen bazaizu, behar baduzu lastana (eta ez losintxa) eta zerbait gozoa (baina ez melenga), gertura-

tu zaitez Boteroren pinturara. Arazoekin eta intelektualkeriekin burua apurtu nahi ez baduzu eta, berriz, une samur bat igarotzea xede baduzu, adiskidetasuna eta elkartasuna zer diren jakitea beharrezkoa bazaizu, zaratez gogait eginda bazaude eta soinua bere betean entzuteari ezinbestekoa baderitzozu (isiltasunaren parekoa den hori), hor dago Botero. Tenis partida bat jokatu nahi baduzu (modu horretan forma batetik bestera jabal joanez), kaleko zapata garbitzailearen eskuila leuna sentitu nahi izanez gero edota aspalditik dantza egin gabekoa bazara eta dantzaren formen sentsualtasuna berriro ere sentitzeari beharrezkoa baderitzozu, besarkadarik besarkadena eta musurik esferikoena behar badituzu, ez eduki zalantzarik, Botero Enera jo. Koskak berdindu nahi badituzu eta ez badakizu nola egin edota ataka gaitzean bazaude jo Boterorengana, hark lagunduko dizu-eta. Baltsamorik ezean, hor duzu Boteroren pintura harrigarria.

Bere pintura bisitatu nuen azken aldian, urtarrilaren 8an, hainbeste txikitasun artean (xeheetasunik ñimiñoenen artean) eta handitasun artean (bat-bateko bolumenen artean) ezin gusurago ibili nintzen. Museoko paretak horma-iruditasunaz jantzirik zeuden eta espazio batetik bestera nindoan heinean, plastizitatearen izenean dena haziz zihohan.

Azkenik, aitortu nahi nuke Boterorekin bat natorrela, pinturak bere burua aldeztu behar baitu bideoen eta instalazioen aurrean, dagokion espazio propioa berreskuratu.

*Amaia Iturbide*